

LAN-LEGEPEKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEENTZAKO 2. HITZARMENA


ADMINISTRAZIOAK AURREAKORDIOA URRATU DU

Azaroaren 23an Administrazioarekin azken bilera izan dugu, eta haien hitzak entzun eta gero, negoziazioarekin jarraitzeko asmorik ez dutela argi aurreikusten dugu. Are gehiago, irailean sinatu genuen aurreakordioa erabat urratu dutela salatu nahi dugu, negoziazioen bidez lortutako aurrerapauso guztiak atzera botaz, gure kolektiboan sortutako itxaropenak pikutara bidaliz.

HEZITZAILEAK

Behin eta berriro errepikatzen digute hezitzaileen jardun "normalizatu" batera heldu nahi dutela, eta jarraian, 37,5 edo 40 jardunarekin behar batzuk ez direnez kubritzen, **arreta zuzeneko ez diren orduak asteko konpututik atera behar direla** eta urteko konputuari gehitu.

Laburbilduz, **esan nahi dutena da asteko 45 orduko jardun luzeak guk onartzea eta gure sinadurarekin legitimatzea.**



FISIOAK ETA TERAPEUTAK

Fisio eta terapeuta okupazionalen kasuan, mahai gainean atzera pauso

galantak jartzen dituzte. Kolektiboak merezi duen homologazioa eskaintzen dute, bai, baina ez dohainik;
ikasleekin arreta zuzena ez den denbora osoa asteko jardunetik ateratzen saiatzen dira behin eta berriro: koordinazio edo prestakuntza orduak, eskola batetik bestera joateko kotxean ematen den denbora...

Beste kategoriak

Berri onik ez. Zeinu mintzaireren interpreteen kasuan, azkenik lan-hitzarmen barruan sartzeko aukera ematen zaie, baina betidanik izan dituzten lan-baldintzak okertzen. Hezkuntzan 1999tik aritzen den kolektibo bat da, baina Administrazioak inoiz ez duenez haien lana idatziz errekonozitu, **“indefentsio” hutsean geratu dira, sailaren erabaki aldebatekoen menpean.** Egoera honi amaiera eman behar zaio, baina ez edozein modutan.

Adibide hauek “pintzelada” batzuk baino ez dira, testu osoa irakurri eta gero zerrenda luze bat suertatzen zaigu. **Administrazioak argi utzi du bere asmoa heziketa bereziko langileen kontratazioa ahalik eta gehien murriztea dela.**

Bi hilabeteko epe laburrean **Administrazioak eman duen 180°ko aldaketa hau gure kolektiboarentzat zaplateko handia izan da, langileengan sortutako espektatiba guztiak zapuztuz.**

STEE-EILAS negoziatzen jarraitzeko prest dago baina aurreakordioan adostutakoa abiapuntutzat hartuta. Pilota Administrazioaren teilatuan dago eta gu ezin gara geratu bere hurrengo mugimenduaren zain.

**ADMINISTRAZIOAREN ADARRA JOTZEA
ONARTEZINA DA.**

KOLEKTIBO HONEK ERRESPETUA MEREZI DU.

STEE-EILASek Hezkuntza Bereziko langileon lan-baldintzen defentsan
eta kalitateko hezkuntzaren alde borrokan jarraituko du!!

ARABA: Eulogio Serdan kalea 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nicolás Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Basotxiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 behe	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org